

Euskarazko aldizkari zientifikoak zientziaren komunikazio-sisteman

Oskia Agirre
EHU/UPVko liburuzaina

Zientziaren komunikazio-sistemak aldaketa sakonak jasan ditu azken urteotan eta euskal aldizkari zientifikoak ez dira ondo ezagutzen. Egungo ikerketaren ebaluazio-sistemek aldizkari jakin batzuetan eta ingelesez argitaratzera bultzatzen dituzte ikertzaileak. Hala eta guztiz ere, diziplina jakin batzuetan, eta batez ere gizarte- zein giza zientzietan, bertako hizkuntzak erabiltzen dituzten aldizkari zientifikoek bestelako funtzio batzuk ere betetzen dituzte, hala nola trebakuntza, ezagutzeren transmisioan zubi-lana eta ezagutza-hutsuneak betetzea. Artikulu honetan, Inguma datu-basetik abiatuz, euskarazko edukiak argitaratzen dituzten aldizkariak identifikatu dira (41), eta honako ezaugarriak aztertu dira: zer arlotakoak diren, azken urtean argitaratutako euskarazko edukien kopurua, argitaratzaile motak, artikuluen laburpenetan eta webguneetan erabilitako hizkuntzak, formatuak eta sarbide motak, egile-eskubideen zehaztapenak, CC lizentzia motak eta indexazio datu-baseetan aldizkari horiek duten presentzia. Nagusi dira unibertsitateetako argitalpen-zerbitzuek eta irabazi-asmorik gabeko erakundeek argitaratutako sarbide irekiko aldizkariak, erdia baino gehiago gizarte-zientzietakoak. Indexazio datu-baseetan duten presentzia gorabeheratsua da; estatu-mailako datu-baseetan dute presentzia handiena.

GAKO-HITZAK: Euskal aldizkari zientifikoak · Zientziaren komunikazio-sistema · Sarbide irekia.

Publish or perish. Basque scientific journals in the science communication system

The science communication system has suffered deep changes in the past years and studies about Basque scientific journals are still scarce. The current research evaluation system promotes publishing in some English scientific journals. Even so, in some subjects, especially in social sciences and humanities, the local journals which publish in local languages accomplish other functions, such as training, knowledge bridging and filling knowledge gaps. In this study, I identify 41 journals that publish Basque articles out of the total number of journals listed in Inguma and I analyse the following characteristics: journal subject areas, the percentage of articles in Basque published during the last year, the type of publisher, the languages used in both the abstracts of articles and the websites of journals, the type of formats and access, the copyright holder, the type of CC licenses and, finally, the indexation on databases. Open access journals published by the publishing services of universities and non-profit organizations, more than half of them in the social sciences, predominate. Their presence in indexing databases is fluctuating, with a greater presence in national databases.

KEY WORDS: Basque scientific journals · Scientific communication system · Open access.

<https://doi.org/10.26876/uztaro.117.2021.6>

Jasotze-data: 2020-05-26 *Onartze-data:* 2020-07-01

1. Sarrera

Hiru mendez, aldizkari zientifikoak izan dira zientziaren komunikazio-sistemaren oinarrietako bat eta ikerketa zientifikoaren emaitzak ezagutarazteko funtsezko tresna. XVII. mendean aldizkariak sortu zirenetik, haien kopuruak gora egin du etengabe. Aldizkari zientifikoek 3 funtzio nagusi betetzen dituzte, eta funtzio horiek zientziaren komunikaziorako erabiltzen diren beste bide batzuetatik, hau da, ohar, gutun, komunikazio pertsonal eta abarretatik bereizten dituzte (Montgomery, 2013: 70): ezagutza berria aldi berean irakurle askori eta hainbat lekutara zabaltzeko gaitasuna; gordailu modura duten funtzioa, bertan ezagutza gorde eta berreskuratu baitaiteke; zientziarako erretorika profesionala ezartzean betetzen duten papera, bai artikulu zientifikoaren egiturari dagokionez, bai diskurtsoaren estiloa ezartzean.

Rowland-ek (2002: 1) ere bat egiten du aldizkariak ezagutza zabaltzen eta gordailu gisa betetzen duten funtzioa nabarmentzean, eta beste bi funtzio aipatzen ditu: argitaratutako informazioaren kalitate-kontrola eta egileen lanaren aitortza. Parekoen errebisioa bereziki garrantzitsua da kalitate-kontrollean, eta aldizkari zientifikoaren oinarrietako ezaugarria da.

Azken hamarkadetan zientziaren komunikazio-sistemak aldaketa sakon eta garrantzitsuak jasan ditu. Alde batetik, digitalizazioak irakurketa-formatu berriak ahalbidetu ditu. Bestetik, Interneten sorrerarekin batera ezagutza zientifikoa mundura doan eta berrerabiltzeko moduan zabaltzeko mugimenduak sortu eta indartu dira, sarbide irekia eta zientzia irekiarekin erlazioa duten mugimendu desberdinak, alegia.

Aldizkariaren papera eta egoera aztertuz milaka artikulu eta lan argitaratu dira, bai mundu-mailan, bai estatu-mailan. Halere, euskal aldizkari zientifikoaren inguruan ikerketa gutxi egin dira; eta goi-mailako euskarazko produkzio zientifikoa bere osotasunean aztertzen duten lan gutxi batzuk alde batera utzita (Artetxe, 2010; 2011; 2015), gehienak aldizkari edo arlo jakin bati dagozkion ikerketak dira ((Artetxe, 2005; 2006; Barcenilla Garcia eta Vivas Ziarrusta, 2017; Begiristain, 2017; Bilbao Telletxea, 2017; Furundarena, 2018).

Komunikazio zientifikoan erabilitako hizkuntzen papera luze eta zabal aztertu izan da. II. Mundu Gerraren aurretik, hiru ziren zientziaren komunikazio-sisteman nagusitasuna zuten hizkuntzak: alemana, frantsesa eta ingelesa. Alemaniak gerra galtzean eta frantsesaren beherakadarekin batera, ingelesa hizkuntza hegemoniko bilakatu zen. Ingelesa *lingua franca* bihurtzeak abantaila ugari ditu, nazioarteko harremanak eta ezagutzaren hedapena errazten baititu, baina baditu bere alde ilunak ere.

Alde ilunetako bat Bennettek (2007) «Epistemicide» izendatu duen fenomeno da, hau da, kultura eta hizkuntza jakin bati loturiko tradizio intelektualak eta identitateak galtzea. Diskurtso zientifikoa aldatu egiten da hizkuntzaren arabera, ingelesaren (edo edozein hizkuntzaren) domeinuak ezagutzatzat zer onar daitekeen ere baldintzatzen du. Itzulpengintzan ere garrantzizko afera da, itzulpenetan ere ingelesa ez diren hizkuntzen erretorika eta pentsamoldeak galtzeko joera baitago. Kulczycki eta abarrek (2018) internazionalizaziora bideratutako politika zientifikoek

argitalpen-ohituretan izan dezaketen garrantzia azpimarratzen dute, bai onerako, bai txarrerako. Egoera desberdina da Mendebaldeko eta Iparraldeko Europa, eta Erdialdeko eta Ekialdeko Europako herrialdeetan, 8 herrialdetako argitalpenen datu-base nazionalak aztertuta ikusi ahal izan dutenez. Ingelesa ez beste hizkuntzak hitz egiten diren herrialdeetan, giza eta gizarte-zientzien argitalpen-eredu eta hizkuntzak ez dira lotzen diziplina bakoitzaren idiosinkrasiarekin bakarrik, baita herrialde bakoitzaren kultura eta ondare historikoarekin ere.

Eugene Garfield-ek¹, ingelesaren aldeko joera ezaguna bazuen ere, ingelesaren domeinuak sor zitzaizkeen hizkuntza-oztopoak nabarmendu zituen, ama-hizkuntza edozein dela ere (Garfield eta Welljams-Dorok, 1990: 10):

The fact that English is the internationally accepted language of research communication raises the issue of a language barrier in two senses. First, those whose native language is not English risk being unaware of —an overlooked by— mainstream international research unless they learn to read, write, and publish in English. Second, native English-speaking researchers risk being ignorant of significant findings reported in foreign languages, especially the Japanese and Russian literature, unless they become proficient in at least one other language...²

Ikerketaren ebaluazio-prozesuek garrantzi handia dute ikertzaileen karrera profesionalean eta zuzenean eragiten diete ikertzaileen argitalpen-ohiturei, joera zehatz batzuk susta baititzaizkete, ingelesez «*carrot and stick*» izenez ezagutzen dena (Gómez-Hernández, 2015). Nazioarteko indexazio datu-baseek ingelesa eta osasun-zientzia, teknologia eta zientzia hutsen arloko aldizkarien aldeko joera ezaguna dute eta eztabaida ugari sortu ditu horrek (Martín-Martín, Orduna-Malea, eta López-Cózar, 2018; Chavarro, Ràfols, eta Tang, 2018). Euskarazko aldizkarien indexazioa gorabeheratsua da, eta normalean ez dira ebaluazio-lanetarako erabiltzen diren indexazio-iturri nagusietan agertzen, horiek ingelesa eta zientzia puruak, osasun-arlokoak eta teknologikoak lehenesten baitituzte. Azken urteotan nazioarteko datu-baseek ingelesa ez beste hizkuntzetan eta giza eta gizarte-zientzietan argitaratzen diren aldizkariak gehitzeko saiakerak egin dituzte; horren adibide da Web of Science-ren ESCI³ datu-basea. Horretaz gain, badira hutsune hori bete nahirik, estatu-mailan zein nazioartean sortutako datu-baseak (CARHUSPlus, ERIHPlus, Latindex, DOAJ, CIRC, eta abar eta abar). Hala eta guztiz ere, euskara bezalako hizkuntza txikien kasuan, bereziki zaila da datu-base horietan presentzia izatea, eta webgune zein edukietan ingelesaren presentzia gero eta handiagoa da iturri horietan indexatua izateko helburuarekin. Inguma bezalako datu-baseek ez dute kalitate-irizpiderik aplikatzen, hau da, euskarazko goi-mailako produkzioa biltzen dute baina kalitate-filtrorik aplikatu gabe. Helburua euskarazko produktu denaren estaldura exhaustiboa ematea da.

1. Eugene Garfield ISI datu-basearen sortzailea izan zen (gaur egun Clarivate enpresaren Web of Science datu-basea).

2. Kontuan hartu behar da 1990eko hamarkadan idatzitako artikulua dela eta gaur egun japoniera edota erusieraren ordez txinera izango litzatekeela, adibidez, aipatutako hizkuntza.

3. Web of Science: Emerging Sources Citation Index: <<https://clarivate.com/webofsciencegroup/solutions/webofscience-es-ci/>>.

Nazioarteko datu-base ezagunetan ez agertzeak ez du esan nahi ebaluaziorako erabiltzen diren beste datu-base batzuetan euskal aldizkarien presentziarik ez dagoenik. Giza eta gizarte-zientzietan erabiltzen diren datu-baseetan euskarazko aldizkarien presentzia egiazta daiteke, baita Google Scholar edo MIAR estaldura zabaleko datu-baseetan ere. Datu-base batzuetan presentzia izateko eskaera egitea beharrezkoa da, hala nola, DOAJ, ERIHPlus edota MIARen kasuan.

Google Scholar batez ere bilatzaile moduan ezagutzen bada ere, hainbat produktuk osatzen dute Google Scholar «familia»: bilatzaileaz gain, Google Scholar Metrics zerbitzu bibliometrikoa eta Google Scholar Citations, profil akademikoak jasotzen dituen produktua, eskaintzen ditu. Google Scholarren indexatua izateko, web akademikoaren parte izan behar da (ez dago indexatua izateko eskaera egin beharrik). Google Scholarren presentzia izatea garrantzizkoa da literatura akademiko periferikoarentzat, mundu-mailako ikusgaitasuna ematen baitu, masa kritiko osora iristeko aukerarekin, eta datu bibliometrikoak ere eskaintzen ditu, horiek garbiketa- eta txukuntze-lana behar badute ere. Publish or Perish⁴ bezalako tresnak ere probetxuzkoak izan daitezke bestelako datu bibliometrikorik lortzerik ez dagoenean. Google Scholarren indexatuta egoteko baldintza minimo hauek bete behar dira (Orduña-Malea *et al.*, 2016: 101-118): dokumentuak goiburuan izenburua izan behar du, ahal izanez gero dokumentuaren gainerakoaren letra-tamaina handiagoan; egileak izan behar ditu eta horiek justu izenburuaren azpian joan behar dute, lerro bereizi batean; laburpena izatea; bibliografia, erreferentziak edo antzeko atal bereizi bat izatea.

Horietatik laburpena erabat derrigorrezkoa da, Google Scholarrek ez baitu laburpenik gabeko dokumenturik indexatzen. Google Scholarrek webgune bat indexatzeko bete beharreko pausoak hauek dira: 1) Web akademikoaren barnean egotea. 2) Aurretiaz azalduko baldintza minimoak. 3) Fitxategien formatuak (HTML, PDF, PDF (GZ), PS (GZ), ez daitezela 5 MB baino handiagoak izan). 4) Bisita onartzea (1. baldintza teknikoa). 5) Erabilgarritasuna (2. baldintza teknikoa). 6) Fitxategien identifika-zioa (3. baldintza teknikoa). 7) Indexazio-baldintzak (metadatuak eta maketazioa).

Nazioartean ere kezka eragin duen gaia da eta mundu-mailako hainbat adierazpenetan jaso dira kezka hauek. Ikerketaren ebaluazioari dagokionez, bereziki garrantzitsuak dira DORA adierazpenak eragin-faktoreari egindako kritikak (San Francisco Declaration on Research Assessment, 2012) eta nola ez Leidengo adierazpenak 3. puntuan adierazitakoa: «Tokian-tokian garrantzitsua den ikerkuntzaren bikaintasuna babestu egin behar da» (Hicks *et al.*, 2015)⁵. Komunikazio

4. Google Scholar edota Microsoft Academic Search bezalako iturrietatik aipamen-datu gordinak biltzen dituen programa da: <<https://harzing.com/resources/publish-or-perish/>>.

5. Bertso originalak honela dio: 3)Protect excellence in locally relevant research. In many parts of the world, research excellence is equated with English-language publication. Spanish law, for example, states the desirability of Spanish scholars publishing in high-impact journals. The impact factor is calculated for journals indexed in the US-based and still mostly English-language Web of Science. These biases are particularly problematic in the social sciences and humanities, in which research is more regionally and nationally engaged. Many other fields have a national or regional dimension — for instance, HIV epidemiology in sub-Saharan Africa. This pluralism and societal relevance tends to be suppressed to create papers of interest to the gatekeepers of high impact: English-language journals. The Spanish

zientifikoan eleaniztasuna bultzatzeko Helsinkiko ekimenak (2109) 3 puntu azpimarratzen ditu horren inguruan: ikerketaren emaitzen hedapena gizarte osoaren mesederako da; egitura nazionalak babestu behar dira tokian garrantzizkoa den ikerketa argitaratzeko; hizkuntza-aniztasuna bultzatu behar da ikerketaren ebaluazio-, balioztatze- eta finantzazio-sisteman.

Ikerketaren ebaluazioan giza eta gizarte-zientzietan dauden arazoei edo gabeziei erantzun bat emateko eredu alternatiboak jarri dituzte abian herrialde nordikoetan. Eredu berri horietan bai formatu desberdinak, bai tokiko hizkuntzak kontuan hartzen dira. Giza eta gizarte-zientzietan argitalpen-bide propioak existitzen dira eta artikuluz gain, monografiak ere indar handia dute. Ez dira ulertu behar batak bestea ordezkatzen duten formatu gisa, elkarren osagarri moduan baizik (Sivertsen, 2016a). Eredu honek ez du *lingua franca* desberdinek ezagutzaren hedapenean duten papera baztertzen; bi alde bereizten ditu, aldiz, hizkuntzen aferan: nazioartera begira erabiltzen diren hizkuntzak, eta tokiko gizartera baliagarriagoak direnak.

Norvegiako eredia, edo «Norwegian Model» izenez ezaguna den eredia, parekoen errebisioa duen literatura akademiko osoa haztatutako adierazle bakar batean biltzen saiatzen da, (ikerketa arlo guztietan, giza zientzietan garrantzi handiagoa duten formatuak eta hizkuntzak barne), ikerketa-ahaleginak irakasle eta sailen artean alderagarria eginez, bai ikerketa-erakundeen artean, bai erakundeen barnean. Norvegiaraz gain hainbat herrialdetan aplikatu den eredu horrek (Belgika, Danimarka, Finlandia, Portugal) 3 osagai nagusi ditu (Sivertsen, 2016b): datu-base nazional bat; ponderazio-sistema bat duen argitalpen-adierazle bat; eta, azkenik, errendimenduan oinarritutako finantzazio-eredua.

Testuinguru horretan, korrante nagusian edo mainstream barruan txertatzen ez diren aldizkariak 3 funtzio betetzen dituzte (Chavarro, Tang, eta Råfols, 2017: 1670-1671): 1) argitaratzen ikasten hasteko espazio bat eskaintzen dute (trebakuntza); 2) aldizkari nagusietako artikuluen eta aldizkari horietara sarbide mugatua duten komunitateek irakurtzen dituzten artikuluen arteko lotura ahalbidetzen dute (ezagutzaren transmisioan zubi-lana); 3) aldizkari nagusiek ondo jasotzen ez dituzten gaiak argitaratzen dituzte (ezagutza-hutsuneak bete).

Egungo aldizkari zientifikoan azterketan, mainstream/periferia dikotomiaz gain, eragin handia dute Internetek eta digitalizazioak. Teknologia berriek sarbide irekia eta edukien berrerabilera ahalbidetu eta bultzatu dituzte, aldizkari munduan indar handiko mugimendua sustatuz. Sarbide irekiko argitalpen bat identifikatzeko ezaugarriak Bethesdako Adierazpenean ezarri ziren, eta lana irekian izateaz gain, egile-eskubideak eta lizentziak ere kontuan hartzen ditu (Bethesda Statement on Open Access Publishing, 2003):

sociologists that are highly cited in the Web of Science have worked on abstract models or study US data. Lost is the specificity of sociologists in high-impact Spanish-language papers: topics such as local labour law, family health care for the elderly or immigrant employment. Metrics built on high-quality non-English literature would serve to identify and reward excellence in locally relevant research.

Definition of Open Access Publication

An Open Access Publication[1] is one that meets the following two conditions:

1) The author(s) and copyright holder(s) grant(s) to all users a free, irrevocable, worldwide, perpetual right of access to, and a license to copy, use, distribute, transmit and display the work publicly and to make and distribute derivative works, in any digital medium for any responsible purpose, subject to proper attribution of authorship[2], as well as the right to make small numbers of printed copies for their personal use.

2) A complete version of the work and all supplemental materials, including a copy of the permission as stated above, in a suitable standard electronic format is deposited immediately upon initial publication in at least one online repository that is supported by an academic institution, scholarly society, government agency, or other well-established organization that seeks to enable open access, unrestricted distribution, interoperability, and long-term archiving (for the biomedical sciences, PubMed Central is such a repository).

Notes:

1. Open access is a property of individual works, not necessarily journals or publishers.

2. Community standards, rather than copyright law, will continue to provide the mechanism for enforcement of proper attribution and responsible use of the published work, as they do now.

Budapesteko Adierazpenak, aldiz, sarbide irekia lortzeko bi bide zehazten zituen (Budapest Open Access Initiative, 2002): sarbide irekiko aldizkariak (urrezko bidea izenez ere ezagutzen dena), eta autogordailutzea (bide berdea, gordailu instituzional edota tematikoak erabiliz). Sarbide irekiaren lehen defendatzaileak autogordailutze edo bide berdearen aldekoak baziren ere (Harnad *et al.*, 2008), aldizkarien bideak indar handia hartu du, bai argitaletxe ez-komertzial zein komertzialen artean. Are gehiago, egun zabalduen dagoen sarbide irekiko eredia brontzezkoa da, hau da, argitaletxearen webgunean zintzilikatutako artikuluen irakurketa bakarrik baimentzen duena, bestelako berrerabilera-eskubiderik gabe (Piwowar *et al.*, 2018).

Bi adierazpen horien osagarri da Berlingo Adierazpena (Berlin Declaration, 2003), ehunka erakundek beren atxikimendua erakutsiz sinatu dutena. Hiru adierazpen horiek sarbide irekiaren mugarriztat jotzen dira, eta BBB adierazpenak izenez ezagutzen dira.

Aldaketa-garaiotan aldizkarien irekiera-maila eta egile-eskubideen eta lizentzien erabilera ez da ezagutzen euskal aldizkarien kasuan, inguruko hizkuntzetan luze eta zabal aztertu den gaia den arren (Melero, Laakso, eta Navas-Fernández 2017), eta argitaletxeen politikak jasotzeko propio sortutako datu-baseak ere badaude: Dulcinea⁶ eta Sherpa/Romeo⁷.

6. Dulcinea: Derechos de explotación y permisos para el auto-archivo de revistas científicas españolas, <<https://www.accesoabierto.net/dulcinea/>>.

7. Sherpa/Romeo: publisher copyright policies & self-archiving: <<http://sherpa.ac.uk/romeo/index.php>>.

2. Helburu eta hipotesiak

Komunikazio-sistemaren testuinguru konplexu eta berri honetan, ez da egungo euskal aldizkari zientifikoaren azterketa orokorrik egin, bizi dugun egoeraren argazkia eta aldizkariaren ezaugarri nagusiak zeintzuk diren azalduz. Hutsune hori betetzea da artikulu honen helburua.

Aldizkarigintzaren inguruan idatzitako lanak euskarazko produkzio zientifikoaren historian ardatzen dira, egungo egoeraren argazki orokorra lortzea nekeza delarik. Internetek eta digitalizazio-teknologiek komunikazio zientifikoa goitik behera aldatu dute, euskarazko aldizkari zientifikoak barne.

Hauek dira lan honetan landu diren hipotesi nagusiak:

- Euskarazko produkzio zientifikoa aldizkari gutxi batzuetan pilatzen da.
- Euskarazko aldizkari zientifikoak hainbat ezaugarri dagokionez homogeneoak dira.
- Sarbide irekia eta digitalizazioa modu zabalean barneratu dituzte euskarazko aldizkari zientifikoak.

3. Metodologia

Euskarazko edukiak argitaratzen dituzten aldizkari zientifikoak identifikatzeko, hainbat iturritara jo daiteke. Hala eta guztiz ere, aldizkariak aztertzeko erabiltzen diren ohiko iturriek⁸ ez dute euskarazko produkzioa jasotzen eta jasotzen duten kasu bakaretan, ez dituzte beti aldizkariaren datuak zehaztasunez ematen, hizkuntzarekin izan daitezkeen arazoengatik edo beste arrazoi batzuegatik (Navas-Fernández, 2016). Ez da euskarara mugatzen den arazoa, gaztelania eta ingelesa ez diren beste hizkuntzetan ere gertatzen baita, euskararen kasuan hutsuneak eta zehaztasun falta areagotzen badira ere. Estatu-mailan egindako ikerketek ez dituzte hizkuntzak gaztelania eta ingelesetik haratago zehazten (Claudio-González, Martín-Baranera, eta Villarroya Planas, 2017). Hori horrela, Inguma datu-basea da lan honen abiapuntu, goi-mailako euskarazko produkzio zientifikoa jasotzen duen iturri osoena baita.

Aldizkariaren azterketan honako adierazleak jaso dira: euskarazko edukiak argitaratzen dituzten eta parekoen errebisia duten aldizkari zientifikoak; aldizkari zientifikoak arloka; azken urtean euskarazko edukiak argitaratu dituzten aldizkariak; argitaratzaile motak; laburpenetan eta aldizkariaren webguneetan erabilitako hizkuntzak; formatuak eta sarbide motak; egile-eskubideak eta aldizkariaren indexazio datu-baseetan aldizkari horiek duten presentzia.

Datuak lortzeko kontsultatutako iturriak aldizkariaren webguneak, Inguma datu-basea eta «Indexazioa» atalean jasotako datu-baseak izan dira (MIAR, Ulrichsweb, Latindex, CIRC, CARHUSPlus, Google Scholar Metrics, ERIHPlus, DOAJ, ESCI, SJR, FECYT)⁹.

8. Web of Science, Scopus, Google Scholar Metrics eta abar.

9. Datuak 2020ko maiatzean jaso dira.

4. Emaidzak

4.1. Euskarazko aldizkari zientifikoen identifikazioa

Ingumatik abiatuta¹⁰ eta bertan jasota dauden 129 aldizkariak aztertuz, egun bizirik dauden eta parekoen ebaluazioa aplikatzen duten 41 aldizkari identifikatu daitezke. Aldizkariak parekoen ebaluazioa erabiltzen ote duten edo ez jakiteko, aldizkariak webguneak aztertu eta ebaluazio-prozesuaren atalean edo balioak litzatekeen atalean adierazten den informazioa erabili da. Irizpide hori aplikatu ondoren, parekoen ebaluazioa aplikatzen ez dutelako eta, ondorioz, aldizkari zientifikoen estandarrek erabat betetzen ez dituztelako, azterketatik kanpo gelditzen dira euskal aldizkari garrantzitsuak diren hainbat aldizkari, hala nola *Jakin*, *Elhuyar* edota *Bat Soziolinguistika Aldizkaria*. Aldizkariak zerrenda osoa, alfabetikoki ordenaturik:

Aldiri, *Ankulegi*, *Anuario del Seminario de Filología Vasca «Julio de Urquijo»*, *ArkeoGazte*, *Ars Bilduma*, *Ausart*, *Bidebarrieta*, *Cuadernos de Etnología y Etnografía*, *Cuadernos Europeos de Deusto*, *Egan*, *Ekaia*, *Ekonomia*, *Enpresen Zuzendaritza eta Administrazio Aldizkaria*, *Euskera*, *Fontes Linguae Vasconum*, *Gaceta Médica de Bilbao*, *Gogoa*, *Huarte de San Juan: Filología eta Hizkuntzaren Didaktika*, *Huarte de San Juan: Geografía e Historia*, *Ikastorrata*, *e-Revista de Didáctica*, *Inguruak*, *International e-Journal of Criminal Science*, *Kondaira*, *Lan Harremanak*, *Lurralde*, *Mediatika*, *Munibe: Antropologia-Arkeologia*, *Munibe: Ciencias Naturales*, *Osagaiz*, *Papeles del CEIC*, *Príncipe de Viana*, *Revista de Lenguas y Literaturas Catalana*, *Gallega y Vasca*, *Revista Vasca de Economía Social / Gizarte Ekonomiaren Euskal Aldizkaria*, *RVAP - Herri Arduralaritzako Euskal Aldizkaria*, *Sancho el Sabio*, *Sortuz*, *Tantak*, *Trabajos de Arqueología de Navarra*, *Uztaro*, *Vasconia*, *Zer. Revista de Estudios de Comunicación*.

Aldizkari horiek euskarazko artikuluak onartzen dituzten aldizkariak badira ere, euskara hutsean argitaratu eta parekoen ebaluazioa aplikatzen duten 8 aldizkari zientifiko bakarrik daude: *Aldiri*, *Egan*, *Ekaia*, *Gogoa*, *Kondaira*, *Osagaiz*, *Tantak* eta *Uztaro*. Horietatik lau, UEUK argitaratzen ditu (*Aldiri*, *Kondaira*, *Osagaiz* eta *Uztaro*), hiru Euskal Herriko Unibertsitateak (*Ekaia*, *Gogoa* eta *Tantak*), eta azken aldizkaria Euskal Herriaren Adiskideen Elkarteak argitaratzen du (*Egan*).

4.2. Euskarazko aldizkari zientifikoak arloka

Gizarte-zientzietako edukiak argitaratzen dituzten aldizkariak nagusi dira euskal aldizkariak artean: zerrendatutako 41 aldizkarietatik erdia baino gehiago, 23 zehazki, gizarte-zientzietakoak dira (% 56). Giza zientzietako aldizkariak 12 dira (% 29); ingeniariak, fisika eta matematika, eta osasun-zientzietan, arlo bakoitzean, 2 aldizkari argitaratzen dira (% 10, bi arloak batuta). Azkenik, bizitzaren zientzietako eta diziplina anitzeko aldizkari bana argitaratzen dira (% 5, bi arloak batuta). Ingelesa ez beste hizkuntzetan ohikoa den banaketa da, zientzia huts eta osasun-zientzietan ohikoa baita ingelesez argitaratzea eta argitaletxe komertzialetan argitaratzea (Melero, Laakso, eta Navas-Fernández, 2017: 147).

10. <<http://www.inguma.eus/ingumari-buruz>>.

Euskara hutsez argitaratzen duten aldizkariak honela banatzen dira arloka: bi, gizarte-zientzietan; bi, ingeniariaritz, fisika eta matematika arloetan; bi, giza zientzietan; bat, osasun-zientzietan, eta bat, diziplina anitzekoak.

1. taula. Aldizkariak arloka.

Arloka	Aldizkari kopurua	Portzentajea
Gizarte-zientziak	23	% 56
Giza zientziak	12	% 29
Ingeniaritza, fisika eta matematika	2	% 5
Osasun-zientziak	2	% 5
Bizitzaren zientziak	1	% 2,5
Diziplina anitzekoak	1	% 2,5

4.3. Azken urtean euskarazko edukiak argitaratu dituzten aldizkariak

Egile-oharretan euskarazko edukiak onartzen direla adierazi arren, aldizkari guztiek ez dituzte euskarazko artikulua argitaratzen zenbaki guztietan, ez eta maiztasun berdinarekin ere. 2019. urtean argitaratutako zenbakietan¹¹, honakoa da euskarazko edukien presentzia aztertutako aldizkarietan:

2. taula. Aldizkariak azken urtean argitaratutako euskarazko edukien kopurua.

Aldizkariak	2019an euskarazko edukiak	Euskarazko edukien portzentajea
<i>Aldiri</i>	Bai	% 100
<i>Ankulegi</i>	Bai (2018)	% 17
<i>Anuario del Seminario de Filología Vasca «Julio de Urquijo»</i>	Bai (2018)	% 60
<i>ArkeoGazte</i>	Ez	% 0
<i>Ars Bilduma</i>	Ez	% 0
<i>Ausart</i>	Bai	% 5,9
<i>Bidebarrieta</i>	Bai	% 12
<i>Cuadernos de Etnología y Etnografía</i>	Bai (2018)	% 22
<i>Cuadernos Europeos de Deusto</i>	Ez	% 0
<i>Egan</i>	Bai	% 100
<i>Ekaia</i>	Bai	% 100
<i>Ekonomiaz</i>	Ez	% 0

11. 2018ko data ematen da oraindik 2019ko alea argitaratu ez den kasuetan. Aldizkari batzuek atzerapen handiz argitaratzen dituzte euren zenbakiak.

<i>Enpresen Zuzendaritza eta Administrazioarako Aldizkaria</i>	Bai	% 14
<i>Euskera</i>	Bai (2018)	% 89
<i>Fontes Linguae Vasconum</i>	Bai	% 81
<i>Gaceta Médica de Bilbao</i>	Bai	% 6
<i>Gogoa</i>	Bai	% 100
<i>Huarte de San Juan: Filologia eta Hizkuntzaren Didaktika</i>	Ez	% 0
<i>Huarte de San Juan: Geografia eta Historia</i>	Ez	% 0
<i>Ikastorratza. e-Revista de Didáctica</i>	Bai	% 33
<i>Inguruak</i>	Ez	% 0
<i>International e-Journal of Criminal Science</i>	Ez	% 0
<i>Kondaira</i>	Bai (2018)	% 100
<i>Lan Harremanak</i>	Ez	% 0
<i>Lurralde</i>	Bai	% 22
<i>Mediatika</i>	Bai	% 50
<i>Munibe: Antropologia-Arkeologia</i>	Ez	% 0
<i>Munibe: Ciencias Naturales</i>	Ez	% 0
<i>Osagaiz</i>	Bai	% 100
<i>Papeles del CEIC</i>	Ez	% 0
<i>Príncipe de Viana</i>	Bai	% 4
<i>Revista de Lenguas y Literaturas Catalana, Gallega y Vasca</i>	Bai	% 10
<i>Revista Vasca de Economía Social/ Gizarte Ekonomiaren Euskal Aldizkaria</i>	Bai	% 29
<i>RVAP - Herri Arduralaritzako Euskal Aldizkaria</i>	Bai	% 5
<i>Sancho el Sabio</i>	Ez	% 0
<i>Sortuz</i>	Ez	% 0
<i>Tantak</i>	Bai	% 100
<i>Trabajos de Arqueología de Navarra</i>	Ez	% 0
<i>Uztaro</i>	Bai	% 100
<i>Vasconia</i>	Bai	% 29
<i>Zer. Revista de Estudios de Comunicación</i>	Ez	% 0

Euskarazko edukiak onartzeak, beraz, ez du euskarazko edukiak argitaratzen direnik adierazi nahi. Aldizkarien % 39k (16) ez du azken urtean euskarazko edukirik argitaratu. Aztertzeko dago zein den euskarazko artikulua ez argitaratzearen arrazoia: argitaratzeko euskarazko edukirik jaso ez izana edota jaso arren ez direla argitaratzeko aipostzat jo arrazoi desberdinak direla medio (interesik eza, aldizkariaren helburuekin bat ez etortzea edota kalitate-irizpideak ez betetzea)

Hau da, zerrendatutako aldizkari horien guztien egileentzako gidalerroetan euskarazko artikulua onartzen dituztela esaten bada ere, ez dira aldizkari horien zerbaki guztietan euskarazko edukiak argitaratzen. Euskarazko edukien kopurua gorabeheratsua da, eta aldizkari jakin batzuetan kontzentratzen da euskarazko artikuluen produkzio gehiena. Badira urteetan euskarazko artikulurik argitaratu ez duten aldizkariak ere. Bat dator Artetxek aurretiaz emandako datuekin (2011).

4.4. Argitaratzaileak

Bi argitaratzaile mota nagusi identifika daitezke euskal aldizkarigintzan: irabazi-asmorik gabeko erakundeak eta unibertsitate/ikerketaren zentroen argitalpen-zerbitzuak.

Argitaratzaileen artean nagusi dira irabazi-asmorik gabeko erakundeak; horiek 18 aldizkari argitaratzen dituzte, euskarazko edukiak onartzen dituzten aldizkari guztien % 44 dira hortaz. Erakundeetako hiruk, aldizkari bat baino gehiago argitaratzen dituzte: UEU (4), Aranzadi Zientzia Elkarteak (2) eta Eusko Ikaskuntza (2). UEUren 4 aldizkariak euskara hutsez argitaratzen dira. Gainontzeko erakundeek aldizkari batean onartzen dituzte euskarazko edukiak, kasu batzuetan argitaratzen duten aldizkari bakarra delarik: «Julio Urkixo» Euskal Filologi Mintegi Institutua, Ankulegi Antropologia Elkarteak, ArkeoGazte, Bilboko Medikuz Zientzien Akademia, Euskal Herriaren Adiskideen Elkarteak, Euskal Soziologia eta Zientzia Politikoen Elkarteak, Euskaltzaindia, INGEBA, Euskal Geografia Elkargoak, Lege Soziologiako Nazioarteko Erakundea, Sancho el Sabio Fundazioak.

Unibertsitateak eta ikerketaren zentroak dira ondoren doazenak 17 aldizkari argitaratuz, aldizkariaren % 41. Unibertsitateen artean EHUren argitalpen-zerbitzuaren aldizkari kopurua nabarmendu behar da, 13 aldizkari argitaratzen baititu. Horietatik 3 (*Ekaia*, *Gogoak* eta *Tantak*) euskaraz argitaratzen dira. Beste 3 aldizkariak Deustuko Unibertsitateak, Nafarroako Unibertsitate Publikoak eta UNEDek ematen dituzte argitaratu; euskarazko edukiak onartzen dituzte, beste hizkuntza batzuen artean.

Gainontzeko 6 aldizkariak gobernu-erakundeek argitaratutakoak dira (% 15). Nafarroako Gobernuaren Vianako Printzea Erakundeak argitaratzen du aldizkari gehien, 4 guztira; eta bi Eusko Jaurlaritzak (Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak eta Ekonomia Sailak).

3. taula. Argitaratzaile motak.

Argitaratzaile mota	Aldizkari kopurua	Portzentajea
Irabazi-asmorik gabeko erakundeak	18	% 44
Unibertsitateak eta ikerketa-zentroak	17	% 41
Gobernu-erakundeak	6	% 15

Argitaletxe komertzialek ez dute presentziarik euskal aldizkarigintzan. Kasu horietan finantzazio-iturri nagusiak sustengatzen dituzten erakundeak dira, edota harpidetza/bazkidetza kuotak irabazi-asmorik gabeko erakundeen kasuan. Adibide gisa, *Revista de Psicodidáctica* har dezakegu. Euskal Herriko Unibertsitatearen argitalpen-zerbitzuak argitaratzen zuen urteetan, euskarazko artikulua onartzen zituen; oso kopuru apalean, baina tarteka artikuluren bat argitaratzen zuten euskaraz, horregatik agertzen da Inguma datu-basean jasotako aldizkarien artean. Elsevier argitaletxe komertzialera aldaketa egin eta gero, egileentzako gidalerroetan ez da euskara aipatzen, gaztelania eta ingelesez idatzitako artikulua soilik onartzen dira.

4.5. Artikuluen laburpenak

Laburpenak garrantzitsuak dira datu-baseetan indexazioa errazteko orduan. Nazioarteko datu-baseetan batez ere, ingelesez laburpena izatea nahitaezkoa da (Orduña-Malea *et al.*, 2016). ERIH Plus¹² edo Web of Science¹³ bezalako datu-baseen baldintzen artean edukiak dauden hizkuntzetan daudela ere, laburpenak ingelesez ematea ageri da. Artikuluen laburpenetarako erabiltzen diren hizkuntza modu argian zehaztea ezinezkoa da kasu batzuetan, aldizkarietan hizkuntza desberdinetako edukiak onartzen direnez, laburpenak ere hizkuntza desberdinetan ematen baitira. Ondorengo taulan egileentzako gidalerroetan laburpenen inguruan adierazitakoa jasotzen da (irizpideak garbi ematen ez diren kasuetan, azken zenbakietako artikulua kontsultatu dira):

4. taula. Artikuluen laburpenen hizkuntzak.

Laburpenak	Onartzen diren hizkuntzak		Derrigorrezko hizkuntzak	
	Aldizkari kopurua	Portzentajea	Aldizkari kopurua	Portzentajea
Euskaraz	39	% 95	21	% 51
Gaztelaniaz	33	% 80	24	% 59
Ingelesez	40	% 98	38	% 93
Frantsesez	9	% 22	1	% 2
Beste batzuk	4	% 10	0	% 0
Euskaraz/Ingelesez	38	% 93	19	% 46
Euskaraz/Gaztelaniaz	31	% 76	13	% 32
Euskaraz/Gaztelaniaz/Ingelesez	30	% 73	11	% 27
Ingelesez/Gaztelaniaz	32	% 78	22	% 54

12. <https://dbh.nsd.uib.no/publiseringskanaler/erihplus/about/criteria_for_inclusion>.

13. <<https://clarivate.com/webofsciencegroup/journal-evaluation-process-and-selection-criteria/>>.

Aldizkari batzuetan laburpenak derrigorrez zein hizkuntzatan agertu behar diren adierazten da. 21 aldizkari dira laburpenak euskaraz aurkeztearen betebeharra ezartzen dutenak, 24 gaztelaniazko laburpena izateko baldintza ezartzen dutenak eta 38 ingelesezko laburpena eskatzen dutenak. Nagusi dira, hortaz, artikulua argitaratzeko erabilitako hizkuntza edozein dela ere, ingelesezko laburpena izatea baldintzatzat duten aldizkariak. Ingelesarekin batera euskarazko laburpena ere eskatzen duten aldizkariak 19 dira, eta ingelesez eta gaztelaniaz nahitaez eskatzen dutenak 22. Nahi eta nahi ez laburpenak hiru hizkuntzetan eskatzen dituzten aldizkariak, aldiz, 11 dira.

4.6. Aldizkarien webguneetan erabiltzen diren hizkuntzak

Edukiak euskaraz onartu arren, badira webguneetan euskara erabiltzen ez duten aldizkariak.

Webgunea euskaraz duten aldizkariak 29 dira (% 70), horietatik 7 euskaraz bakarrik dutelarik. Halere, *Uztaro* aldizkariaren kasuan, webgunea gehienbat euskaraz izan arren, informazio orokorra hainbat hizkuntzatan ematen da (euskara, gaztelania, ingelesa eta frantsesa). Badira aldizkariak kudeatzeko OJS (Open Journal System) erabiltzen duten aldizkariak, eta hizkuntza desberdinetan jartzeko aukera ematen badu ere, edukiak ez daude itzulita. Gaztelania, 33 aldizkari erabiltzen dute, eta ingelesa 21ek. Webguneak hizkuntza batean baino gehiagotan izatea ohikoa da: 26 aldizkari elebidunak dira, eta 16 eleaniztunak (% 39). Horietatik, 22 aldizkari euskaraz eta gaztelaniaz dute webgunea, 16k euskaraz eta ingelesez. Hau da, webguneetan euskara eta ingelesa erabiltzen dituzten aldizkariak gaztelania ere erabiltzen dute. Webgune eleaniztunak dituzten aldizkarietatik 5ek frantsesa edo beste hizkuntzaren bat erabiltzen dute.

5. taula. Aldizkarien webguneetan erabiltzen diren hizkuntzak.

Webguneak	Aldizkari kopurua	Portzentajea
Euskaraz/Gaztelaniaz	22	% 54
Euskaraz/Ingelesez	16	% 39
Gaztelaniaz	33	% 80
Euskaraz	29	% 70
Ingelesez	21	% 51
Beste hizkuntza batzuk	5	% 12
Elebidunak	26	% 63
Eleaniztunak (euskara, gaztelania, ingelesa)	16	% 39

4.7. Formatuak eta sarbide motak

Interneten eta teknologia berrien garapenak digitalizazio-prozesuak sustatu ditu argitalpenen arloan, eta paperean argitaratzen ziren aldizkari asko formatu

elektronikora saltoa egitera edota bi formatutan argitaratzera bultzatu ditu. Aldizkariak formatu berrietara egokitzeaz aparte, aldizkari elektroniko berriak sortu eta indartu dira azken urteotan. Halere, oraindik ere paperean argitaratzen diren hainbat aldizkari daude, horien edukiak bi formatuetan irakur daitezkeelarik. Jasotako aldizkari guztiak argitaratzen dira formatu elektronikoan (41), horietatik % 56 aldi berean paperean argitaratzen badira ere (23).

6. taula. Aldizkarien argitalpen-formatuak.

Formatua	Aldizkari kopurua	Portzentajea
Online	18	% 44
Online + paperean	23	% 56

Aurretiaz aipaturiko aldizkarien digitalizazioak sarbide mota berriak jarri ditu irakurleen eskura. Paperean argitaratzen ziren aldizkariak lortzeko bideak mugatuak ziren: harpidetzak ordaintzea; erakunde argitaratzaileko kide izatea; edota aldizkarien truketze-bidea erabiltzea (ohikoa liburutegi eta erakunde zientifiko eta kultural askotan). Digitalizazioak beste sarbide mota batzuk ahalbidetu ditu, ohiko harpidetzaz gain, doako sarbidea posible baita gaur egun. Badira, orobat, lehendabizi paperean argitaratzen diren aldizkariak, eta epe baten ondoren, online doan eskuratu daitezkeenak. Ondoren jasotzen diren sarbide motak aldizkarien bertsio digitalenak dira, paperezko bertsioek baino helmen handiagoa baitute (Interneteko konexioa duen edonor irits daiteke aldizkari digital bat irakurtzera, baldin eta sarbide irekikoa edo doakoa bada).

Doako onlineko aldizkariak nagusi dira euskal aldizkarigintzan; % 93 doan kontsulta baitaitezke sarean (39) argitaratzen diren une beretik. Beste bi aldizkarik (% 5) urtebeteko enbargo-epaia dute onlineko bertsioa doan kontsultagai izan aurretik, urtebetez paperean bakarrik irakur daitezke hortaz.

7. taula. Aldizkarien sarbide motak.

Sarbide mota	Aldizkari kopurua	Portzentajea
Doan	39	% 95
Bahitura-epekin	2	% 5

Argitaletxeek ez diete egileei inolako tasa edo ordainketarik eskatzen artikuluak irekian jartzeko garaian (APC edo Article Processing Charge izenez ezagutzen dena). Argitaletxe komertzialek erabiltzen duten finantzazio-bidea da gehienbat.

4.8. Egile-eskubideak

Sarbide irekiak indar handia hartu du azken hamarkadetan, eta aldizkari zientifikoaren ezaugarrietan islatzen da. Doakotasuna sarbide irekiaren ezaugarrietako bat da; beste ezaugarri nagusia egile-eskubideen erabilerarekin lotzen da. Idazleek

egile-eskubideak mantentzea edo besterentzea eska dezakete aldizkariak. Bethesdako Adierazpenean lan bat sarbide irekikoa izateko, doan irakurtzeaz gain irakurleek bestelako eskubide batzuk ere izan behar dituztela zehazten da: erabilera pertsonalerako kopia mugatuak egitea, hedapena, lan eratorriak egitea, etab. (Bethesda Statement on Open Access Publishing, 2003)

Egileak bere eskubideak mantentzeak, edota argitaratzaileei besterentzeak, zuzenean eragiten dio argitalpenaren hedapen eta berrerabilerrari. Horretaz gain, eskubideen jabetza bezain garrantzitsua da erabiltzen den lizentzia mota, egileez aparte irakurleei ere lanak modu desberdinetara zabaldu eta berrerabiltzeko aukera ematen baitie.

Aztertutako aldizkari multzoaren kasuan, argitaratzaileen gehiengoak (% 83, 34 aldizkarik) egile-eskubideak beren esku uztea eskatzen dute. Egileek ustiapen- eta argitalpen-eskubideak argitaletxeen esku uzten dituzte kasu horietan, eta argitaletxeak erabakitzen du zeintzuk izango diren baimentzen dituen ondorengo argitalpen eta berrerabilerrak. 5 aldizkariaren kasuan, egileek mantentzen dituzte ustiapen- eta argitalpen-eskubideak (% 12). Egileek eskubideak mantentzen dituztenean, lehen argitalpena uzten dute aldizkariaren esku. Bi aldizkarik ez dute egile-eskubideen inguruko zehaztasunik eskaintzen. Jabetza intelektualaren araudiaren arabera, ezer adierazten ez bada, egileak eskubide osoak erreserbatuak ditu.

8. taula. Egile-eskubideen jabetza.

Egile-eskubideen jabetza	Aldizkari kopurua	Portzentajea
Argitaletxeak	34	% 83
Egileak	5	% 12
Zehaztu gabe	2	% 5

Erabilitako lizentzia motei dagokienez, Creative Commons (CC) lizentziak dira gehien erabiltzen direnak, 6 lizentzia motetatik 5 aurki baitituzakegu. Sarbide irekiko aldizkari zientifikoetan lizentzia ohikoenak dira Creative Commons lizentziak. Honakoa da lizentzien erabilera, lizentzia irekienetik hasi eta murriztaileenera: lizentziarik zabalena erabiltzen dute 5 aldizkarik, CC-BY; 3 dira CC-BY-SA lizentzia erabiltzen dutenak; 5ek CC-BY-NC; beste 5ek CC-BY-NC-SA; eta azkenik, lizentzia murriztaileena, CC-BY-NC-ND, 13 aldizkarik erabiltzen dute. Nabarmena da portzentaje handi batek (% 56) erabilera ez-komertzialera mugatzen dituela berrerabilera-eskubideak.

4 aldizkarik adierazten dute eskubide guztiak erreserbatuta dituztela. Beste 6 aldizkarik, aldiz, ez dute inolako lizentzia motarik zehazten; eskubideak erreserbatuak dituztela ondoriozta daiteke, hortaz.

9. taula. Creative Commons lizentziak.

CC lizentziak	Aldizkari kopurua	Portzentajea
CC-BY	5	% 12
CC-BY-SA	3	% 7
CC BY-ND	0	% 0
CC BY-NC	5	% 12
CC BY-NC-SA	5	% 12
CC BY-NC-ND	13	% 32
Zehaztu gabe	6	% 15
(C)	4	% 10

4.9. Indexazioa

Ikerketaren ebaluaziorako eta informazio zientifiko akademikoa bilatzeko erabiltzen diren hainbat datu-basetan jasotzen dira euskal aldizkari zientifikoak, kopurua eta estaldura gorabeheratsua bada ere.

Hauek dira aztertutako datu-baseak:

- MIAR (Model d'Identificació i Avaluació de Revistes)

<http://miar.ub.edu>

Aldizkariak identifikatu eta aztertzeko funtsezko informazioa biltzen duen datu-basea da, Bartzelonako Unibertsitateko ikertzaileek sortua eta mantendua. Aldizkariak zientzia-arlo nagusietan biltzen dira, eta horiek arlo akademiko espezifikoetan. ICDS (Índice Compuesto de Difusión Secundaria) deituriko zenbakizko adierazle bat ezartzen du, aldizkariak honako iturri hauetan duten presentziaren arabera: espezialitate bakoitzeko nazioarteko datu-baseak, aipamen-indizeak, Ulrich's Periodical Directory eta Latindex moduko erreperorioak.

- Ulrichsweb (Ulrich's Periodicals Directoryren onlineko bertsioa)

<http://ulrichsweb.serialssolutions.com/>

300.000 argitalpen baino gehiago jasotzen ditu. Mota guztietako aldizkari eta aldizkako argitalpenei buruzko informazioa biltzen duen direktorioa da: ISSNa, argitaletxea, gaia, hizkuntza, laburpen- eta indexazio-zerbitzuen estaldura, testu osoko datu-baseen estaldura, eduki-etaulak, liburuzainek idatzitako azterketak.

- Latindex

<https://www.latindex.org/>

Iberoamerikako aldizkari zientifikoak, tekniko-profesionalak eta zientzia- eta kultura-dibulgazioko aldizkariak biltzen ditu. Bi informazio zerbitzu nagusi eskaintzen ditu: direktorioa, erregistratutako aldizkari guztien informazio

bibliografikoa eta harremanetarako datuak biltzen dituena; eta katalogoa, Latindex metodologiaren arabera kalitate-estandar handienak betetzen dituzten aldizkariekin osatua.

- CIRC

<https://www.clasificacioncirc.es/>

Ikerketaren ebaluaziorako sortutako produktua da, giza eta gizarte-zientzietako aldizkariak biltzen ditu eta kalitatearen araberrako sailkapena egitea du helburu (A+, A, B, C, D).

Aldizkariak automatikoki gehitzen dira bertan, ez eskaera bidez. Erreferentziako datu-baseetan indexatutako aldizkariak gehitzen dira: Social Science Citation Index (Web of Science), Arts & Humanities Citation Index (Web of Science), Scopus, Fecyt Kalitate-Zigilua, ERIH PLUS (European Reference Index for the Humanities and the Social Sciences), Latindex Katalogoa eta Direktoria.

- CARHUSPlus

<http://agaur.gencat.cat/es/avaluacio/carhus>

AGAUR (Agència de Gestió d'Ajuts Universitaris i de Recerca) Direcció General de Recerca proposaturik garatutako produktua da, Kataluniako zientzia- eta unibertsitate-sistemaren ikerketa-jarduerak ebaluatzeko. Tokiko, estatuko eta nazioarteko gizarte-zientzietako eta giza zientzietako aldizkari zientifikoak sailkatzeko sistema bat da (A, B, C, D). 6.233 aldizkari jasotzen ditu.

- Google Scholar Metrics

https://scholar.google.com/citations?view_op=top_venues&hl=es

Google Scholarrek emandako aipamen-datuetatik abiatuta, aldizkari zientifikoak h-indexaren arabera ordenatzen dituzten rankingak dira. Aldizkariak kategoria edo hizkuntzaren arabera sailkatzen dira, eta aldizkaria sailkapenetan agertzen ez den kasuetan, Google Scholarren indexatua badago bilatzailean topatu eta h-indexa jakin daiteke.

- ERIH PLUS (European Reference Index for the Humanities and the Social Sciences)

<https://dbh.nsd.uib.no/publiseringskanaler/erihplus/>

NSD - Norwegian Centre for Research Data arduratzen da datu-basea kudeatzeaz, eta baldintza jakin batzuk betetzea eskatzen du aldizkariak onartzeko: parekoen errebisioaren prozedura deskribatua izatea, ISSNa, argitalpen-batzordea zerrendatzea, laburpena ingelesez edota nazioarteko hizkuntza garrantzitsu batean ematea, eta, azkenik, egileen afiliazioa eta egileen bi heren baino gehiago ez izatea erakunde berekoak.

Gutxienez bi urteko ibilbidea duten aldizkariak egin dezakete indexazio-eskaera, azken bi urteetan argitaratutako zenbakiak aztertzen baitituzte ebaluazio-prozesuan.

- DOAJ (Directory of Open Access Journals)

<https://doaj.org/>

Irabazi-asmorik gabeko erakundea, Infrastructure Services for Open Access CICEk kudeatzen du. Sarbide irekiko 12.000 aldizkari inguru jasotzen ditu eta arlo tematiko guztiak biltzen ditu. Bere helburua nagusia da parekoen errebisioa duten sarbide irekiko aldizkari zientifikoaren ikusgaitasuna, irisgarritasuna, ospea, erabilera eta eragina handitzea. Baldintza jakin batzuk betetzen badira, DOAJ Seal delakoa aitortzen du.

- ESCI (Emerging Sources Citation Index)

<https://clarivate.com/webofsciencelgroup/solutions/webofscience-esci/>

Web of Science-ren bilduma nagusiaren parte da. 28 irizpideetatik kalitateari dagozkion 24 irizpideak betez gero (gainontzeko 4ak eraginarekin erlazioatutako irizpideak dira), ESCIn sartzeko aukera dago. 7.800 aldizkari jasotzen ditu.

- SJR

<https://www.scimagojr.com/>

Scimago ikerketa-taldeak garatutako produktua (CSIC, Granadako Unibertsitatea, Extremadurako Unibertsitatea, Carlos III Unibertsitatea, Alcalá de Henaresko Unibertsitatea). Scopus datu-baseko informaziotik abiatuta aldizkariak eta adierazle zientifiko nazionalak biltzen dituen atari publikoa. Adierazle horiek eremu zientifikoak ebaluatzeko eta aztertzeko erabil daitezke. 34.000 aldizkari baino gehiagoren aipatze-datuak jasotzen ditu.

- FECYT

https://calidadrevistas.fecyt.es/sites/default/files/informes/2020_02_ranking_revistas_sello_fecyt.pdf

Espainiako Estatuko aldizkari zientifikoak ebaluatzeko tresna, ebaluazio-agentziei laguntzeko asmoz sortua. 57 dira ebaluazioa egiteko erabilitako kalitate-irizpideak. 396 aldizkari jasotzen ditu egun. FECYT kalitate-zigilua ematen du.

10. taula. Indexazio datu-baseetan jasotako euskal aldizkari kopurua.

Datu-baseak eta indexazio-zerbitzuak	Indexatutako aldizkari kopurua	Portzentajea
MIAR	39	% 95
Ulrichsweb	37	% 90
Latindex*	35	% 85
CIRC	31	% 76
CARHUSPlus	18	% 44
Google Scholar Metrics	13	% 32
ERIHPlus	12	% 29
DOAJ	10	% 24
ESCI	7	% 17
SJR	4	% 10
FECYT	1	% 2,5

* Aldizkari batzuetan paperezko bertsioa dago ebaluatuta, beste batzuetan onlinekoa eta gutxi batzuetan biak.

Presentzia zabalagoa da estaldura zabala duten datu-baseetan eta estatu-mailako datu-baseetan (MIAR, Ulrichsweb, CIRC, CARHUSPlus). Nazioarteko datu-baseetan, aldiz, presentzia asko murrizten da (Google Scholar Metrics, ERIHPlus, DOAJ, ESCI, SJR). FECYT datu-basean ere presentzia urria da. Azalpen erraza du, ordea: FECYT-en indexatua egoteko irizpide nagusia Web of Science eta SJR datu-baseetan indexatua egotea da.

Ikerketaren ebaluaziorako, datu-baseetan duten presentziaz gain, horiek ezarritako sailkapenetan aldizkariak duten kokapena ere azter daiteke. Datu-base guztiek ez dituzte sailkapenak ezartzen, baina ezartzen dituztenen artean, euskal aldizkari gehienak sailkapen-taulen behealdean daude:

11. taula. Aldizkarien egoera indexazio datu-baseetako sailkapenetan.

Sailkapena		
CARHUSPlus	Aldizkari kopurua	Portzentajea
2018		
A	0	% 0
B	4	% 10
	<i>Cuadernos Europeos de Deusto</i> <i>Munibe: Antropologia-Arkeologia</i> <i>Revista de Lenguas y Literaturas Catalana, Gallega y Vasca</i> <i>RVAP - Herri Arduralaritzako Euskal Aldizkaria</i>	
C	0	% 0

<i>D</i>	14	% 34
	<i>Ankulegi</i> <i>Ars Bilduma</i> <i>Bidebarrieta</i> <i>Cuadernos de Etnología y Etnografía</i> <i>Ekonomiaz</i> <i>Fontes Linguae Vasconum</i> <i>Huarte de San Juan: Geografía eta Historia</i> <i>Lan Harremanak</i> <i>Lurralde</i> <i>Mediatika</i> <i>Papeles del CEIC</i> <i>Príncipe de Viana</i> <i>Sancho el Sabio</i> <i>Zer. Revista de Estudios de Comunicación</i>	
CIRC	Aldizkari kopurua	Portzentajea
<i>A</i>	1	% 2,5
	<i>Munibe: Antropologia-Arkeologia</i>	
<i>B</i>	2	% 5
	<i>Cuadernos Europeos de Deusto</i> <i>Papeles del CEIC</i>	
<i>C</i>	11	% 27
	<i>ArkeoGazte</i> <i>Ars Bilduma</i> <i>Ausart</i> <i>Euskera</i> <i>Fontes Linguae Vasconum</i> <i>International e-Journal of Criminal Science</i> <i>Lurralde</i> <i>Príncipe de Viana</i> <i>Revista de Lenguas y Literaturas Catalana, Gallega y Vasca</i> <i>Uztaro</i> <i>Vasconia</i>	
<i>D</i>	17	% 41
	<i>Ankulegi</i> <i>Anuario del Seminario de Filología Vasca «Julio de Urquijo»</i> <i>Bidebarrieta</i> <i>Cuadernos de Etnología y Etnografía</i> <i>Ekonomiaz</i> <i>Enpresen Zuzendaritza eta Administrazioarako Aldizkaria</i> <i>Huarte de San Juan: Filología eta Hizkuntzaren Didaktika</i> <i>Inguruak</i> <i>Lan Harremanak</i> <i>Mediatika</i>	

	<i>Revista Vasca de Economía Social/Gizarte Ekonomiaren Euskal Aldizkaria</i> <i>RVAP - Herri Ardularitzako Euskal Aldizkaria</i> <i>Sancho el Sabio</i> <i>Sortuz</i> <i>Tantak</i> <i>Trabajos de Arqueología de Navarra</i> <i>Zer. Revista de Estudios de Comunicación</i>	
Latindex	Aldizkari kopurua	Portzentajea
1.0 (2002-2017)	24	% 59
	<i>Aldiri</i> <i>Anuario del Seminario de Filología Vasca «Julio de Urquijo»</i> <i>ArkeoGazte</i> <i>Bidebarrieta</i> <i>Ekonomiaz</i> <i>Enpresen zuzendaritza eta administraziorako aldizkaria</i> <i>Euskera</i> <i>Fontes Linguae Vasconum</i> <i>Huarte de San Juan: Geografía eta Historia</i> <i>International e-Journal of Criminal Science</i> <i>Lan Harremanak</i> <i>Lurralde</i> <i>Mediatika</i> <i>Munibe: Antropologia-Arkeologia</i> <i>Príncipe de Viana</i> <i>Revista de Lenguas y Literaturas Catalana, Gallega y Vasca</i> <i>Revista Vasca de Economía Social/Gizarte Ekonomiaren Euskal Aldizkaria</i> <i>RVAP - Herri Ardularitzako Euskal Aldizkaria</i> <i>Sancho el Sabio</i> <i>Sortuz</i> <i>Tantak</i> <i>Trabajos de Arqueología de Navarra</i> <i>Uztaro</i> <i>Vasconia</i>	
2.0	11	% 27
	<i>Ankulegi</i> <i>Ars Bilduma</i> <i>Ausart</i> <i>Cuadernos de Etnología y Etnografía</i> <i>Cuadernos Europeos de Deusto</i> <i>Gaceta Médica de Bilbao</i> <i>Ikastorratza. e-Revista de Didáctica</i> <i>Inguruak</i> <i>Munibe: Ciencias Naturales</i> <i>Papeles del CEIC</i> <i>Zer. Revista de Estudios de Comunicación</i>	

5. Ondorioak

Euskarazko edukiak 41 aldizkarik onartzen badituzte ere, 8 bakarrik dira euskara hutsean argitaratzen direnak. Jakintza-arloei dagokienez, aldizkarien erdia baino gehiago, gizarte-zientzia arlokoak dira (% 59), eta laurden bat baino gehiago, giza zientzietakoak (% 27). Banaketa hori ohikoa da ingelesa ez diren hizkuntzetan, osasun-zientzia, teknologia eta zientzia hutsen arloko aldizkarietan ingelesa nagusi baita.

Euskarazko edukiak onartzen direla adierazten bada ere, horietako portzentaje handi batek ez du azken urtean euskarazko edukirik argitaratu (% 40). Halere, aldizkarien % 51 laburpenak euskaraz emateko baldintza ezartzen du, % 59k gaztelaniazkoa, eta gehiengo batek (% 93) laburpena ingelesez izatea jartzen du baldintzat. Webguneetan ere hizkuntza desberdinak erabiltzeko joera dago. 7 soilik dira euskara bakarrik erabiltzen duten aldizkariak (% 17). Ohikoena webgunea hainbat hizkuntzatan izatea da: 29 aldizkaritan, euskarazko bertsioaz aparte, webgunea beste hizkuntza batean ere aurki daiteke (% 70). Euskara eta ingelesa erabiltzen dituzten 16 aldizkariak gaztelania ere erabiltzen dute, hau da, eleaniztunak dira (% 39)

Argitaratzaileei dagokienez, euskarazko aldizkariak idiosinkrasia propioa dute, ez baitago argitaletxe komertzialik haien atzean, eta ondorioz sarbide irekiaren aldeko hautua eta APCen absentsia nabarmenak dira. Enbargoaren erabilera ere gutxienezkoa da aldizkarien artean.

Indexazioa gorabeheratsua da, MIAR datu-basea delarik aldizkari gehien biltzen duen datu-basea, eta nazioarteko datu-base handietan aldizkari horiek duten presentzia anekdotikoa da (DOAJ, ESCI, SJR). Adierazgarria da, sarbide irekiko aldizkarien kopurua altua bada ere, horiek DOAJ datu-basean duten presentzia eskasa. Kasu gehienetan ez da ezagutzen presentziarik ezaren arrazoia zein den: datu-basean indexatua izateko egiteko eskaera egin ez izana edo baldintzak ez betetzea. Enbargodun aldizkariak ez dira onartzen DOAJen, baina horiek 2 besterik ez dira.

Euskal aldizkarien egoera hauskorra da ikerketaren ebaluaziorako erabiltzen diren tresnetan duten presentzia txikiaren ondorioz, zientzian hizkuntza periferikoen kasuan ohikoa den bezala. Batez ere, bertako hizkuntzan egindako ikerketa ebaluatzeko tresna propio baten falta sumatzen da. Halere, nabarmena da aldizkariak modernizatzeko eta kalitate-estandarretara egokitzeko egiten ari diren esfortzua eta ikertzaile-komunitate txikia izanda ere aldizkariak erakusten duten aniztasuna. Potentzialitate handia nabari da, errealitatea oso mugatua bada ere.

Artikulu honetan hainbat datu jasotzen badira ere, euskal aldizkarigintza zientifikokoaren argazkia oraindik osatzeko dago, eta gaur egun sarbide irekiaren testuinguruan indar handia duten bestelako alderdi batzuk azter daitezke ondoren: gordailutze-baimenak (zer, non eta noiz); kalitate-estandarrak, azterketa bibliometrikoak, etab.

Bibliografia

- Apalategi Begiristain, J. (2017): «Giza eta Gizarte Zientziak eta Pedagogia euskaraz», *Uztaro: giza eta gizarte-zientzien aldizkaria*, 100, 21-26.
- Artetxe, K. (2005): «Euskaltzaindiaren ekoizpen zientifikoa Inguman: Euskal komunitate zientifikoaren datu-basearen aurkezpena Euskaltzaindian», *Euskera: Euskaltzaindiaren lan eta agiriak = Trabajos y actas de la Real Academia de la Lengua Vasca = Travaux et actes de l'Academie de la Langue basque*, 50 (1), 189-203.
- , (2006): «Psikologiako artikuluen azterketa *Uztaro* aldizkaria oinarri harturik», *Uztaro*, 56, 31-50.
- , (2010): «Komunitate zientifiko euskalduna. Azterketa historikoa eta bibliometrikoa», UPV/EHU doktorego-tesia, <http://www.euskara.euskadi.net/appcont/tesisDoctoral/PDFak/KarmeLe_Artetxe_TESI.pdf>.
- , (2011): *Euskararen aurrerabidea zientzia eta goi mailako esparruan: azterketa bibliometrikoa*, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Vitoria-Gasteiz.
- , (2015): «Euskararen azpi-instituzionalizazioa esparru akademikoan: datuak, galderak eta erronkak», *Jakin*, 2015, 207, 93-114.
- Barcenilla Garcia, H. eta Vivas Ziarrusta, I. (2017): «Artearen arloko produkzio zientifikoa euskaraz XX. mendearen amaieran eta XXI. aren hasieran. UEUren UZTARO aldizkariaren ekarpena», *Uztaro: giza eta gizarte-zientzien aldizkaria*, 100, 5-28.
- Berlin Declaration on Open Access to Knowledge in the Sciences and Humanities (2003): <<https://openaccess.mpg.de/Berlin-Declaration>> (Kontsulta: 2020-05-12).
- Bethesda Statement on Open Access Publishing (2003): <<http://legacy.earlham.edu/~peters/fos/bethesda.htm>> (Kontsulta: 2020-05-12).
- Bilbao, G. (2017): «Hizkuntzaren eremuko jakintza-alorrak eta *Uztaro* aldizkariaren ekarpenak euskarazko aldizkari zientifikoan langintzan», *Uztaro: giza eta gizarte-zientzien aldizkaria*, 100+, 53-57.
- Budapest Open Access Initiative (2002): <<http://www.budapestopenaccessinitiative.org/read>> (Kontsulta: 2020-05-12).
- Chavarro, D.; Ràfols, I. eta Tang, P. (2018): «To What Extent Is Inclusion in the Web of Science an Indicator of Journal 'Quality'?», *Research Evaluation* 27 (2), 106-18, <<https://doi.org/10.1093/reseval/rvy001>>.
- Chavarro, D.; Tang, P. eta Ràfols, I. (2017): «Why Researchers Publish in Non-Mainstream Journals: Training, Knowledge Bridging, and Gap Filling», *Research Policy* 46 (9), 1.666-80, <<https://doi.org/10.1016/j.respol.2017.08.002>>.
- Claudio-González, M.G.; Martín-Baranera, M. eta Villarroya Planas, A. (2017): «La edición de revistas científicas en España: una aproximación descriptiva», *Anales de Documentación* 20 (1), <<http://dx.doi.org/10.6018/analesdoc.20.1.265771>>.
- Furundarena, J. (2018): «Euskarazko komunikabideak osasungintzan: OSAGAIZ, osasun-zientzien aldizkari berria», *Osagaiz: osasun-zientzien aldizkaria*, 1. ale berezia, 27-30.
- Garfield, E. eta Welljams-Dorok, A. (1990): «Language use in international research: a citation analysis», *Annals of the American Academy of Political and Social Science*, 511, 10-24.
- Gómez-Hernández, J.A. (2015): «Efectos negativos de los criterios de evaluación de la actividad investigadora para el sistema de comunicación científica en español», *Anuario ThinkEPI*, 9, 200-204, <<https://doi.org/10.3145/thinkepi.2015.46>>.
- Harnad, S. et al. (2008): «The access/impact problem and the green and gold roads to open access: An update», *Serials review*, 34, 1, 36-40.

- Helsinki Initiative (2019): *Helsinki Initiative on Multilingualism in Scholarly Communication*, <https://figshare.com/articles/Helsinki_Initiative_on_Multilingualism_in_Scholarly_Communication/7887059> (Kontsulta: 2020-05-12)
- Hicks, D. *et al.* (2015): «Bibliometrics: The Leiden Manifesto for research metrics», *Nature News*, 520, (7.548), 429, <DOI 10.1038/520429a>.
- Kulczycki, E. *et al.* (2018): «Publication Patterns in the Social Sciences and Humanities: Evidence from Eight European Countries», *Scientometrics*, 116 (1), 463-86, <<https://doi.org/10.1007/s11192-018-2711-0>>.
- Martín-Martín, A.; Orduña-Malea, E. eta Delgado López-Cózar, E. (2018): «Coverage of highly-cited documents in Google Scholar, Web of Science, and Scopus: a multidisciplinary comparison», *Scientometrics*, 116 (3), 2.175-2.188.
- Melero, R.; Laakso, M. eta Navas-Fernández, M. (2017): «Openness of Spanish Scholarly Journals as Measured by Access and Rights», *Learned Publishing*, 30 (2), 143-55, <<https://doi.org/10.1002/leap.1095>>.
- Montgomery, S.L. (2013): *Does Science Need a Global Language?: English and the Future of Research*, The University of Chicago Press, Chicago.
- Navas-Fernández, Miguel (2016): «Spanish scientific journals in Web of Science and Scopus Adoption of Open Access, relationship between price and impact, and internationality», Universitat de Barcelona, doktorego-tesia, <<http://hdl.handle.net/2445/108270>>.
- Orduña-Malea, E. *et al.* (2016): *La revolución Google Scholar: destapando la caja de Pandora académica*, UNE, Granada.
- Piwozar, H. (2018): «The state of OA: a large-scale analysis of the prevalence and impact of Open Access articles», *PeerJ*, 6:e4375, <<https://doi.org/10.7717/peerj.4375>>.
- Rowland, F. (2002): «The Peer-Review Process», *Learned Publishing*, 15 (4), 247-58, <<https://doi.org/10.1087/095315102760319206>>.
- San Francisco Declaration on Research Assessment (2012): <<http://www.ascb.org/wp-content/uploads/2017/07/sfdora.pdf>> (Kontsulta: 2020-05-12).
- Sivertsen, G. (2016a): «Patterns of Internationalization and Criteria for Research Assessment in the Social Sciences and Humanities», *Scientometrics*, 107, 2, 357-68, <<https://doi.org/10.1007/s11192-016-1845-1>>.
- , (2016b): «Publication-Based Funding: The Norwegian Model», in M. Ochsner, S.E. Hug eta Daniel, H.-D (ed.), *Research Assessment in the Humanities: Towards Criteria and Procedures*, Springer International Publishing, Cham, 79-90, <https://doi.org/10.1007/978-3-319-29016-4_7>.

